

Andoni Arrizabalaga
Ondarroa, Bizkaia (1912)

Aurkibidea

Biografia

"Sagastanekoa" etxekoa. Arrantzalea (fogoneroa) eta marinela.

Zintak

OND-052

- **Proiektua:** IRALeren Bizkaiera Bilduma
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aurre Azurmendi, Jon - Gandiaga, Lurdes
- **Data:** 1986-02-04
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** VHS Standard
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Eskolako bizipenak

- **Erref:** OND-052/002

- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:00:34. **Bukatu:** 00:02:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolan moja batekin ibili zen lehenengo eta ondoren maisuarekin. Berrogeita hamar ikasle inguru ziren gelan eta klase sozialaren arabera banatuta egoten ziren. Zume-makilarekin jo egiten zituen eta aurretik mojararekin ikasitako guztia ahaztu zitzaien.</p>

Transkripzioa

<p>- Eskola hasi giñan gu, ba, gaztetaz, gazte gazten artin. [Ezta ba ixango giñan hoge o hotairu]. Monjeta juten giñan. Eta euan famosa bat, Sor Luzia ixena eukana, monji; erakusten oskun /erakustezkun/ ondo. Han ailla giñan ikastea, ba, sumar, restar, multiplicar, idatzi beste bixkat eta irakurri be bai eta holaik. Ta hango tenporadi pasa gendunin, han lenengo jaunartzi eitten zanin, gero maixuana pasaten zan. Maixuana pasa giñanin, harek ez doskun ametiru monjak erakutsittako ixebez. Ez doskun pregunta be ein, eta obserbau be ez genduzen ein, ba, noa arte dakiaun. Eta lenengo ze emon doskun /emozkun/ maixuk biharra? Plumi hartu, ipiñi bera plumi eta euki, eukitten. Egunak pasa genduzen haxe plumi eukitten. Eta gero emon oskun /emozkun/ holakoxe paper bat, eta han "palotes" esaten gentsan guk, erraixak ein. [...] Oseake, lengo mojik, Sor Luzia horrek, erakutsittaku, ba, bapeztu ein giñan: ahaztu gazkun, eta han ikasi ez. Eta gero harek maixuk eukazen, ba, hirurogei bat mutil edo.</p>

<p>- Hirurogei?</p>

<p>- Hirurogei bat. Bai, berrogeta hamar bai behintzat eukiko zittun harek. Ta euazen zonak. Harek erakusten otsen, ba, Ondarrun euazen jauntxuk esate gako, ba, bixkat aberatsak edo, zeoze ahal ixati eukenak. Harek ipintten [zittuan] zona baten, ta erakutsi haretxei eitten otsen /etxetzen/. Eta gu beste zonan, "zona roja" esaten gentsan guk hari; ba han batzen giñan, bueno, Ondarruko endredoso guztik. Gure eskolan lantxeik beste eskolan eta holaik. Hara etorten zanin maixu, etorten zan zaplarak emotea, torturatea. Zumar makillak ixaten zin, holaik, makilla mehiak. Geuri ekarri erain mendittik, geu joteko. Eta han ez gendun ixte ikasi, ixebez. Gero tablero baten batzen giñan, ipini multiplicaredo dividiredo, ta, bueno, baten batek ekixenak-edo eitten eban /etxeban/ eta beste guztik, ba, al garete. Hara eskola juti alperrik zan. Jo ein genduzen asko. ta [...] bapez. Eskola [...]. Ta gero etxea etorritakun, palizi ostea be; amak gero.</p>

2. Itsasoko lehen urteak

- **Erref:** OND-052/003
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:02:44. **Bukatu:** 00:05:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza

Laburpena:

Etxean ez zuten diru askorik izaten eta hamar urte ingururekin itsasora joan zen lanera. Itsasora hasi aurretik, bolintxeentzat bakailaua txiki-txiki egiten aritu zen, sardinei jaten emateko balio zuena. Motor txikiko barkuetan zaharrenak eta gazteenak batzen ziren; baporeetan (alturakoak), berriz, hamabost urtetik hirurogeira bitartekoak. Lekeitio eta Ondarru bitartean ibiltzen zen hasieran sardinetan. Soldata mailaketa.

3. Trezak prestatzea

- **Erref:** OND-052/004
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:05:16. **Bukatu:** 00:07:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Hamalau urterekin baporean hasi zen eta ofizio desberdina zen. Neguan trezak prestatzen ziren; neguaren aurretik antxoa koskorra harrapatu eta kontserban jarri behar izaten zuten. Ondoren, trezak prestatu behar izaten zituzten etxean, itsasora eramateko.

4. Itsasorako irteera

- **Erref:** OND-052/005
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:07:14. **Bukatu:** 00:11:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Faroa

Laburpena:

Eguraldi egokia ote zegoen begiratzen zuten hiru lagunak eta ondoren serenoak abisua ematen zien arrantzaleei. Eguraldi ona bazen, hiru danbateko jotzen zituzten etxeetan. Talaiaria eta farozaina. Itsasorako irteera nola egiten zuten kontatzen du. Sei txalupa farol gorriarekin egoten ziren eta haiek abisua ematen zuten arrantzarako ordua noiz zen.

5. Inauterietako ospakizunak

- **Erref:** OND-052/006
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:11:18. **Bukatu:** 00:15:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

Txalupa-garbitzaileak egoten ziren. Ihauterietarako dirutxoak gordetzen zuten; batzuk nagusiari eske joaten zitzaizkien. Bere gazte garaian, denak mozorrotzen ziren eta tabernan afaltzen zuten. Hauts egunean bihurrikeriak egiten zituzten eta bazkaria egiten zuten. Pasadizo bat kontatzen du.

6. Antxoatara

- **Erref:** OND-052/007
- **Iraupena:** 0:05:25. **Hasi:** 00:15:02. **Bukatu:** 00:20:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:

Negua pasatutakoan, baporeak txukuntzen zituzten. Ondoren antxoatarako prestatzen ziren. Izurdeak topatu behar izaten ziren, haiek erakusten zutelako arraina non zegoen. Baporeekin konpainiak osatzen zituzten eta diru banaketa nola egiten zuten kontatzen du. Pasadizo bat kontatzen du.

7. "Salina, salina" kanta

- **Erref:** OND-052/008
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:20:27. **Bukatu:** 00:21:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

Atunetara San Pedro inguruan irtetzen ziren. San Pedro txiki egunean "Salina,salina" egiten zuten: zahagia bizkarrean hartzen zuen batek eta besteek makila jokia egiten zuten. Abestia kantatzen du.

8. Atunetarako tresnak eta ontziko bizimodua

- **Erref:** OND-052/009
- **Iraupena:** 0:05:58. **Hasi:** 00:21:17. **Bukatu:** 00:27:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko garbitasuna

Laburpena:

Atunetara hamabi lagun joaten ziren. Ezpetak erabiltzen zituzten, hiru aparailudunak. Arto-malutak erabiltzen zituzten amuari lotuta. Itsasontziko egunerokoa kontatzen du; lotarako, ura edateko, garbitasunerako eta jatorduak egiteko nola moldatzen ziren. Berrogei egun egiten zituzten.

9. 1936ko ezbeharra

- **Erref:** OND-052/010
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 00:27:15. **Bukatu:** 00:31:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak

Laburpena:

Irratirik ez zegoenez, ez zuten eguraldi txarra noiz eta nondik zetorren jakiten. 1936an eguraldi txarrarekin gertatutako ezbeharra kontatzen du.

10. Gerratik ihesi, Ameriketara lanean

- **Erref:** OND-052/011
- **Iraupena:** 0:04:49. **Hasi:** 00:31:14. **Bukatu:** 00:36:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Itsasoa » Nabigatzea

Laburpena:

<p>Gerra garaian, Santanderretik Frantziara joan zen. Handik merkantzia-ontzi batean itsasora joan zen; sei hilabetez Ipar Amerika, Kuba eta Mexikon ikatza eta azukrea garraiatzen ibili zen. Itzuleran, ezbeharra izan zuten denboralearengatik. Ondoren, langileen batailoietara bidali zuten eta han gertatukoak kontatzen ditu.</p>

11. Baporeetako arrantza eta bizimodua

- **Erref:** OND-052/012
- **Iraupena:** 0:07:55. **Hasi:** 00:36:03. **Bukatu:** 00:43:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Legatza
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak

Laburpena:

<p>Gerra ostean, etxeko baporea saldu egin zuten. Arrasteroetako bizimodua kontatzen du. Legatz asko arrantzatzen zuten egun gutxitan. Legatzaren prezioa. Irratirik gabe denboraleak errazago harrapatzen zituen; iratiak erabiltzen hasi zirenean, eguraldiaren partea jasotzen zuten eta porturen batean babesten ziren, behar bazuten. Ama Birjinari eskaintzak.</p>

12. Inauterietako koplak

- **Erref:** OND-052/013

- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:43:58. **Bukatu:** 00:47:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

Parranda latzak egiten zituzten. Ihauterietarako diru pixkat izaten zuten. Lagun-taldeak batzen ziren eta kantuan aritzen ziren. Ihauterietako koplak abesten ditu.

13. Donostiako balearen bertsoak

- **Erref:** OND-052/014
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:47:24. **Bukatu:** 00:50:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Itsasoko bertsoak. 1855ean balea agertu zen eta Donostiarrek arpoia sartu zioten, baina getariarrek berentzat nahi izan zuten. Donostiako balearen bertsoak abesten ditu.</p>

14. Eguraldiagatiko ezbeharra

- **Erref:** OND-052/018
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:00:12. **Bukatu:** 01:01:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak

Laburpena:

Denboraleak eragindako ezbeharrek kontatzen ditu.

15. Peio Errota eta Txirritaren bertsoak

- **Erref:** OND-052/021
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 01:03:32. **Bukatu:** 01:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Peio Errota eta Txirritaren bertsoak abesten ditu.

16. Elurretarako bertsoak

- **Erref:** OND-052/023
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 01:05:58. **Bukatu:** 01:09:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Elurra egiten duenerako bertsoak abesten ditu, Ondarruko Urrusolok jarritakoak.

17. Elkarrizketatzaileari botatako bertsoa

- **Erref:** OND-052/024
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 01:09:05. **Bukatu:** 01:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Elkarrizketatzaileari bertsoa botatzen dio, buruz dakizkien bertso batzuei haren izena jarrita.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-31

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com